

# LONJAGUNE!

## PRAKTIKA ONEN GIDA: GAZTE-BILTOKIAK



**LONJAGUNE**  
Gazte-biltokien  
Bitartekaritza  
Zerbitzua



Desanexio, 4 - 1.



94.417.56.16



618.76.87.73



lonjagune@erandioko-udala.net.



# 1. APLIKAZIO EREMUA

Gaur egun "lonjak" dira herriko gazte askoren biltoki, eta 'lonja' deitzen diegu irabazi asmorik gabeko jarduerak egiteko esparru pribatuei, gazteek elkarrekin batzeko eta aisialdirako erabiltzen dituztenak. Lokal horiek, gehienetan, eraikinetako beheko solairuetan kokatuak egon ohi dira.

Alde batetik, era horretako gunek erabiltzen dituzten gazteei dago zuzendua Lonjagune programa, eta, bestetik, Lonjaguneren xede dira, baita, Erandioko udalerrian kokatutako espazio horiek berak. Eta aplikatuko zaie bai gaur egun daudenei eta, baita, gerora zabalduko direnei ere.

Lonjaguneren esparrutik kanpo geratzen dira gazteen aisialdiarekin zerikusi zuzenik ez duten bestelako lokalak: Ostalaritzako jarduerak, txosna eta txoko gastronomikoak barne. Horiez gain, Lonjaguneren eraginpetik kanpo geratuko dira, baita, \*ekainaren 11ko 171/1985 Dekretuaren lehen atalean zerrendatutako jarduera guztiak.

Erabiltzaile, jabe eta lonja horien inguruko auzotarren arteko bizikidetza hobetzeko eta aldean arteko bitartekari lana egiteko asmoz jarri du martxan zerbitzua Erandioko Udalak, Gazte sailaren bidez.

Izan ere, ez dutenez jarduera ekonomikorik ez merkataritza ustiapenik garatzen, Erandioko Udalak badaki lokal horietan ez dela inolako ikuskaritzarik izaten, eta kontrolpetik kanpo geratzen direla.

Gazteen aisialdiko gune horiek gutxieneko baldintzak betetzea da gida honen helburua; gutxieneko baldintzak segurtasun, bizigarritasun eta higieneari dagokionez, eta eragozpenik ez izatea ez erabiltzaileentzako, ez eta komunitatearentzako eta ingurukoentzako ere. Horrez gain, alde batetik, bizikidetza hobetzen lagunduko duten komunikazio bideak ireki nahi ditugu, eta, bestetik, aisialdirako bestelako eskaintza sustatu nahi dugu, kolektibo horrek berak egindako proposamenetatik sortutako eskaintza, bereziki.

\* Lehenengo saila. Ostalaritza, aisia eta atsedean alditako jarduera. // 1. Kapituluak. Taberna eta jatetxeak // 2. Kapituluak. Diskotekak, dantzalekuak, ikuskizun aretoak, zinema aretoak eta bingoak



## 2. NORI ZUZENDUA

- Era horretako guneetan biltzen diren eta adinez nagusi diren pertsonak
- Era horretako guneen erabiltzaile diren adin txikikoen guraso edo legezko tutoreak
- Erabilera hori duten lokalen jabeak
- Auzokideen erkidegoak

## 3. IZENA EMATEKO PROZEDURA

| Gazte-Biltokien Udal Erregistroan eman behar dute izena aisialdirako horrelako guneren bat taldean erabili nahi duten pertsonek.

- Adin nagusiko pertsonek besterik ezin dute egin izenematea.
- Gida honetan eskatutako daturen bat edo agiriren bat aldatzen bada, erabiltzaileak behartuta daude aldaketa horien berri Lonjaguneri jakinarazteko.
- **Gazte-biltoki berririk** zabaltzekotan, Lonjagune zerbitzuari eman behar zaio horren berri. Jarduerari hasiera ematen zaionetik **15 eguneko** epea izango dute erabiltzaileek aurkeztu beharreko dokumentazio osoa Lonjaguneri aurkezteko.
- Lehenagotik erabilitako gazte-biltokien kasuan, erabiltzaileek **bi hilabeteko** epea izango dute Gazte-Biltokien Udal Erregistroan inskripzioa egiteko. Gida honen jakinarazpen ofiziala jasoko den egunetik hasiko da zenbatzen bi hilabeteko epe hori.
- Aurkeztutako dokumentazioa eta eskatutakoa ez badatoz bat, **beste hamar egun gehiago** emango zaie interesdunei aurkeztu beharrekoa aurkezteko, jakinarazpena jaso duten egunetik zenbatzen hasita. Eskatutako dokumentazioa epearen barruan aurkeztu ezean, interesdunek eskabidean atzera egin dutela ulertuko da, eta Lonjagune programatik kanpo geratuko.

### 3.1. Inskripzioa egiteko aurkeztu beharreko agiriak

| Lonjagune zerbitzuaren bitartez egingo da inskripzioa egiteko eskabidea, ondorengo dokumentazioa aurkeztuta:

- Gazte-biltokiko kide guztien zerrenda, datu hauekin, gutxienez: Izen-deiturak eta Nortasun Agirien fotokopiak. Horrez gain, gutxienez zerrendako bi pertsonen helbide elektronikoak eta harremanetarako telefono zenbakiak.
- Lokal jabearen datuak: izen-deiturak, harremanetarako telefonoa eta lokalaren helbidea.
- Adin txikikoen kasuan, legezko tutoreen baimena. (*Nahi duenak Lonjagune zerbitzuan eskuratu dezake baimen ereduia.*)
- Lokala alokatzeko edo lagatzeko kontratuaren kopia eguneratua.
- Erantzukizun zibileko aseguru polizaren eta dagokion ordainagiriaren kopia eguneratua.
- Argi eta ur hornidura kontratuaren kopia.
- Su-itxalgailua egoera onean dagoela egiaztatzen duen dokumentazioa: mantentze kontratuaren ordainagiriaren kopia.
- Lokalaren planoak. Planoan elementu hauek agertu behar dira, gutxienez: Lokalaren azalera, irteera, leihoak (halakorik izatekotan), aireztapena, komuna, gelak, koadro elektrikoa, ur hartuneak eta berogailuak.

### 3.2. Lonjagune barneko zerbitzuak

- Gazte-biltokiarekin zerikusia duten alde guztien arteko bitartekaritza: erabiltzaile, bizilagun eta jabe.
- Udalaren eta gazte-biltokien arteko bitartekaritza .
- Bizikidetzarako aholkularitza
- Lokalaren segurtasunari buruzko aholkularitza.
- **"Programarekin bat egiteagatiko kita":** Su-itxalgailua, botikina, larrialdiko argia eta zaborra sailkatuta biltzeko ontziak, (stocka amaitu arte).

### 3.3. Erregistratu gabeko gazte-biltokiak

| Goian adierazitako epeak bete ondoren inskribatu barik geratzen diren gazte-biltokiak ixteko agindu lezake Udalak, egoerak hala eskatuz gero eta pertsona interesdunak entzun ondoren. Horrez gain, Lonjaguneren zerbitzu barik geratuko dira inskribatu gabeko gazte-biltokiak.

## 4. AZPIEGITURA ETA SEGURTASUN BALDINTZAK



### 4.1. Sarrera

Gazte-biltokiek kalerako irteera zuzena izan behar dute. Beraz, ez da zilegi izango ataritik sarbidea duen bilgunerik, ez eta sotoan dagoenik ere. Sarrera-irteerako ateez zaratarik ez ateratzea bermatu behar da.



### 4.2. Argia

Erabiltzeko baldintza egokietan dagoen instalazio elektrikoa izan behar du gazte-biltokiak. Eta baimendutako elektrikariak sinatutako Instalazio Elektrikoen Buletina izango du. Gainera, ezinbestekoa da indarrean dagoen kontratua aurkeztua (eskatu lokalaren jabeari).



### 4.3. Iturriko ura

Derrigorrezkoa da lokalak iturriko uraren, behintzat, hargune bat izatea, garbitasun eta higiene lanak bermatu ahal izateko. Gainera, ezinbestekoa da indarrean dagoen kontratua aurkeztea (eskatu lokalaren jabeari).



### 4.4. Komuna

Ezinbesteko baldintza da gazte-biltokiak komuna izatea, egoera onean dauden komun-ontzi eta konketaz hornituta, gutxienez.



### 4.5. Larrialdiko argia

Larrialdietarako argi fotoluminiscente bat, gutxienez, izan behar du gazte-biltokiak irteerako atearen gainean, eta, ahal dela, gela guztietan. Argi-seinaleak ondo jarrita egon behar du horman edo sabaian: irteerako atearen goiko partean, lurretik gutxienez 2 metroko altuerara.



### 4.6. Su-itxalgailua

Gazte-biltoki guztiek eduki behar dute, gutxienez, 6 kiloko AFFF su-itxalgailu bat, apar-hautsezkoa, 27A-233B eraginkortasunekoa. Behegainetik, gehienez, 1,50 m-ko altueran jarrita egon behar du itxalgailuak, eta horren mantentze-kontratua indarrean izan behar dute. Lonjagune zerbitzuari urtero eman beharko zaio mantentze zerbitzuaren egiaztagiria. Bestalde, ez da komeni aldizkari, egunkari, eta beharrezko ez diren altzariak eta bestelako material erregaiak pilatzea.



### 4.7. Lehen laguntzetako botikina

Beharrezkoa da lehen laguntzetako botikina izatea lokalean, gutxienez honako gauza hauekin hornituta: Alkohola, ur oxigenatua, desinfektatzailea (povidona iodatua), serum fisiologikoa, kotoia, banakako gaza esterilak, benda, esparatrapua, tiritak, artaziak, pintzak eta esku-larruak.



### 4.8. Intsonorizazioa

Zaratak kontrolatzeko aukera ona da intsonorizazioa. Ez da komeni erraz erretzekoak diren gaiak erabiltzea, hau da, papera, kartoia, arrautza-kutxak, kortxo zuria (polietileno hedatua) eta antzekoak.

### 4.9. Baldintzak betetzeko epeak

**Gazte-biltoki berriak:** Kapitulu honetan zehaztutako gutxienerako baldintza guztiak bete behar dira lonja berri bat ireki aurretik. Baldintzak betetzen ez badituzte, erabiltzaile izan nahi dutenek ezingo dute erregistroan inskribatu biltoki hori egoitatzat hartuta.

**Gida hau indarrean jarriko denean jardunean dauden gazte-biltokiak:** Sei hilabeteko epean bete behar dira kapitulu honetan zehaztutako gutxienerako baldintza guztiak, Gazte-Biltokien Udal Erregistroan izena ematen den egunetik zenbatzen hasita.

# 5. BIZIKIDETZA EGOKIA IZATEKO ETA SEGURTASUNERAKO BALDINTZAK

Gazte-biltoki hauek ezin dira inoren etxebizitza edo ohiko bizileku izan; beraz, ezingo da inor bertan erroldatu eta inork ezin du bertan gauda eman.



## 5.1. Edukiera

Gazte-biltoki guztiek dute gehieneko okupazio gaitasun jakin bat, hau da, lokalean, modu seguruan, egon daitekeen gehieneko pertsona kopurua. Kasu honetan, metro karratu bakoitzeko ezingo da 1,5 pertsona baino gehiago sartu, eta lokalean **GEHIENEZ 20 PERTSONA**. Biltoki arduradunen betebeharra da gehieneko edukiera hori inoiz ez gainditzeko neurriak hartzea. Biltokiaren gehieneko edukiera adieraziko duen kartela jarri beharko da toki ikusgarri batean.



## 5.2. Garbitasuna eta higiena

Erabiltzaileek txukun eta garbi eduki behar dute biltokia, gutxieneko batzuk betez, eta erabiltzaile guztiak dira lokalaren higiena baldintzen erantzule, neurri berean. Hori horrela izanda,


- Ez da onartuko zaborrik edo hondakinik pilatzea, ez lokalaren kanpoaldean ez barrualdean. Debehatuta dago altzaririk kalera ateratzea.
- Bota nahi diren altzariak eta neurri handiko gauzak Garbigunera eraman behar dira, edo, bestela, Udalaren hondakinen Bilketa Zerbitzura deitu aurretiaz. Telefono zk. 944.676.198 / 664.795.004
- Biltokia aireztatzea bermatu behar da..

## 5.3. Orduategia

Jarraian adieraziko den orduategian isiltasuna gorde behar da, bizikidetzat bermatu ahal izateko.

### Orokorrean:

- Igandetik ostegunera: 22:00etatik 10:00etara.
- Ostiral-larunbatetan: 00:00etatik 10:00etara.



### Orduategia luzatzeko salbuespenak:

- Ekainaren 1etik irailaren 30era; isiltasuna ordu erdi beranduago
- Jaiegun bezperetan, ordu bete.
- Herriko jaietan, Aste Santuko ostegunetik astelehenera, inauterietan ostegunetik asteartera eta, Gabonetan, benduaren 21etik urtarrilaren 6ra, ordubete eta erdi beranduago.

Txilio, kantu, oihu eta alferreko zaratarik ez da izan behar biltokira sartzeko eta biltokitik irteteko garaia; eta biltokiaren sarreran jende bilkurarik ez 22:00etatik aurrera.



## 5.4. Berokuntza

Berogailu elektrikoak erabili ahal izango dira, baina diferentzial independentea duen entxufeari lotuta. Parafina edo kerosenoko berogailuak erabiliz gero, biltokiak aireztapeneko sareta izan beharko du. Debehatuta dago butanoa erabiltzea.



## 5.5. Sukaldea

Mikrouhin labeak eta hozkailuak jarri ahal izango dira. Tresna horiek beharrezko neurriak bete beharko dituzte inguruko etxeetara zarata edota bibrazioarik ez transmititzeko.

Debehatuta dago sukaldetik erabiltzea. Biltokiaren batek lehenagotik sukaldea izatekotan, sukalde hori ezingo da erabili, eta ez erabiltzeko akordioa sinatu beharko dute lokalaren erabiltzaileek.



## 5.6. Asegurua

Erantzukizun zibileko aseguruia eduki beharko dute lokal guztiek, eguneratua eta poliza indarrean dela. Aseguruaren gutxieneko estaldura 300.000 eurokoa izango da. Gainera, aseguruaren eta ordainagiriaren kopia aurkeztu beharko dira urteroko berritzearekin.



## 5.7. Kontratua

Biltoki guztiek eduki beharko dute errenta-kontratua edo erabilpen-lagapeneko, alde bietan sinatuta, jabeek eta erabiltzaileek. Erabiltzaile guzti-guztiek sinatu behar dute kontratua edo, bestela, horretarako izendatutako ordezkariak, eta biltokiko kideak gehituz edo ezabatuz joango dira altak eta bajak gertatzen diren heinean, eta eranskinetan jasoko dira. Erabiltzaileak adinbakoak izanez gero, euren legezko tutoreek sinatu beharko dute kontratua. *(Nahi duenarentzat eskuragarri izango da kontratu eredu bat, tramiteak errazte aldera).*

## 5.8. Bestelakoak

- Ezingo da inoiz gazte-biltokian maskotarik bakarrik laga.
- Komeni da giltza joko bat beti eskura eta denon bistara izatea.

# 6. PUNTU SISTEMA

Puntu-sistema bat ezarriko da eta talde bakoitzak **7 PUNTU** izango ditu Gazte-biltokien Udal Erregistroan inskribatzen denean. Puntu-sistema talde osoari aplikatuko zaio, ez kide bakoitzari banaka; horrela, talde osoaren ardura da lokalaren egoera une oro.

## Puntuak irabazteko edota berreskuratzeko ekintzak:

- Urtebetean punturik ez galtzea.
- Lonjagunek proposatutako jardueretan parte hartzea.

Ekintza horietako bakoitzarekin aparteko beste puntu bat irabaziko du taldeak, hasierako zazpi puntuei gehitzeko. Taldeak, gehienez, 10 puntu izango ditu.

## Puntuak galtzea eragiten duten ekintzak:



### PUNTU 1: EKINTZA ARINAK

- Ordu-tegiak eta zaraten gaineko arauak ez betetzea.
- Biltokiaren higiegi falta, eta zaborrak pilatzea lokalaren barruan zein kanpo aldean.
- Biltokiko toki agerian ez erakustea dokumentu hauek: aforoari dagokiona, puntuena eta Gazte-biltokien Udal Erregistroan (Lonjagune) izena emanda egotea erakusten duena.
- Lokalean animaliak bakarrik lagatzea.
- Aulki, mahai, sofa eta bestelako altzariak kalera ateratzea eta kalean erabiltzea, pertsonen ohiko joan-etorria oztopatuz.
- Inskripzioa egitean emandako edozein informazioaren gaineko aldaketen berri ez ematea Lonjagune programari.
- Administrazio tramiteak, epeak eta arauak betetzeari dagokionez gida honetan ezarritako bestelako ekintzak, salbu eta ekintza larri edo oso larritzat hartuko direnak.
- Hurrengo bi ataletan adierazitako ekintzak, dena delako egoera edo gorabeherengatik ez direnean hartu behar ez larritzat, ez oso larritzat.



### 2 PUNTU : EKINTZA LARRIAK

- Gutxieneko segurtasun eta osasungarritasun neurriak ez betetzea, eta biltokiak zein instalazioak egoera txarrean izatea, egoera horrek pertsonen edo ondasunen segurtasunari eragiten diotenean.
- Baimendutako gehienezko edukiera baino erabiltzaile gehiago izatea biltokian, pertsonentzako zein ondasunentzako arrisku egoera larriak sortzen direnean.
- Erabiltzeko baldintza egokietan ez izatea su-itzalgailuaren instalazioa .
- Segurtasuna eta bizikidetzat hobetzeko Lonjagunek eskuratutako materiala txarto erabiltzea.
- Agiriak faltsutzea, manipulatuzea edota aldatzea: Gazte-biltokien Udal Erregistroan inskribatua dagoela erakusten duen agiria, aforoari dagokiona eta puntuena.
- Hiru ekintza arin baino gehiago egitea 6 hilabeteko epean.
- Hurrengo ataletan adierazitako ekintzak, baina dena delako egoera edo gorabeherengatik oso larritzat hartu behar ez direnean.



### 3 PUNTU : EKINTZA OSO LARRIAK

- Lokalaren jarduera debekatzeko edo eteteko ebazpenak ez betetzea.
- Legez debekatutako jolas-ekintzak egitea.
- Biltokira sartzen ez uztea eta ikuskaritza oztopatzea udal zerbitzuetako pertsonari, eta behin eta berriro jartzea eragozpenak.
- Bi ekintza larri baino gehiago egitea sei hilabeteko epean.
- Aurreko bi ataletan adierazitako ekintzak baldin eta arriskuak, eragozpenak zein kalte larriak eragiten badituzte pertsonengan, ondasunetan edo ingurumenean, egoki diren pertsonak horrela irizten diotenean.

Puntu denak galduz gero, biltokiaren erabiltzaileek ezingo dute biltokirik erabiltzeko beste baimenik eskuratu sei hilabeteko epean, erabakia hartuko denetik zenbatzen hasita.

Ekintzak baloratzeko orduan kontuan izango dira honako faktoreak:

- Inori eragindako kaltea zelakoa izan den eta zenbateko kostua eragin duen.
- Ekintzak gizartean daukan eragina.
- Burutu den jarduerak sortutako arriskua.
- Ekintza nahita edo behin baino gehiagotan egin izana.
- Legez kanpo lortu den onura.

## **6.1. Talde osoa edo taldeko kide batzuk beste biltoki batera aldatzea**

### **Lonjagunen inskribatu barik dauden biltoki berrietara aldatzea:**

- Kideen % 70 edo gehiago okupatu gabeko beste biltoki batera joanez gero, lehendik zituen puntuak eutsiko die taldeak. Izango duten kokapen berria jakinarazi beharko diote Lonjaguneri.
- Okupatu barik dagoen beste biltoki batera joango badira taldeko kide batzuk, % 70 baino gutxiago, talde berri modura inskribatu beharko dira, eta gazte-biltokia irekitzean dagozkien zazpi puntuak izango dituzte.
- Lehendik inskribatuta egon diren bi talde edo gehiago elkartuko badira, talde berria osatuko dute, eta berriro egin beharko dute inskripzioa. Irekitzean egokitutako zazpi puntuak izango dituzte.

### **Lehendik inskribatuta dauden biltokietara tokiz aldatzea:**

- Lehendik ere bakoitza bere biltokian inskribatuta egon diren 2 talde batu eta talde bakarra osatzen badute, talde nagusiaren puntuak eskuratuko ditu. Kide berrien zerrenda eman beharko diote Lonjaguneri.
- Lonjagune zerbitzuak eskubidea izango du egoera jakin bakoitza baloratu eta bidezko diren erabakiak hartzeko.



## **7. IKUSKAPEN ETA BITARTEKARITZA LANAK EGITEKO NEURRIAK**

a. Gida honetan ezarritakoaren jarraipena egiteko batzordea eratu da. Honakoek osatuko dute:

- Gazteria saila
- Udaltzaingoa
- Lonjagune: Gazte-biltokien Bitartekaritza Zerbitzua

b. Ohiko ikuskaritzak egingo dira, hartutako konpromisoak betetzen direla egiaztatzeko. Taldearekin hitzartuko dira ohiko bisitak biltokira, gida honetan ezarritakoa behar bezala betetzen dela egiaztatzeko. Bidezkoa bada, egoki diren neurri zuzentzaileak ezartzeko abisuak eman ahal izango dituzte.

c. Erabiltzaileak behartuta daude trabarik ez jartzeko Udalaren izenean ikuskapenak egitera doazen pertsoneri. Ahal dela, aurretiaz emandako hitzorduetan egingo dira ohiko ikuskapenak, erabiltzaileei ahalik eta eragozpenik gutxien eraginez.

d. Biltoki bakoitzak bere ordezkariak izendatuko ditu Lonjaguneren mintzaide izateko. Pertsona horiek izango dira mintzaide, ez beste inor.

e. Lonjagune zerbitzua izango da Udalaren izenean arituko dena mintzaide erabiltzaileen, auzotarren eta jabeen aurrean. Erandioko edozein herritarrek erabil dezake.

Gazte-biltokien eta gazteentzako alternatiben beste kontzeptu baterako abiapuntu izan nahi du ekimen honek, egoera arautzeaz haratago.

# 1. AMBITO DE APLICACIÓN

Uno de los espacios donde actualmente se reúne la juventud del municipio son las "lonjas", entendiéndose por ellas aquellos recintos privados sin ánimo de lucro que, por norma general, se ubican en las plantas bajas de los edificios y que son utilizados como lugar de ocio y encuentro.

El programa Lonjagune se dirige, por un lado, a las usuarias y usuarios de este tipo de espacios juveniles, y por otro lado, también son objeto de Lonjagune los propios espacios juveniles que se encuentren en el término municipal de Erandio. Además, se aplicará tanto a las lonjas que existen actualmente como a las que se abran en el futuro.

Quedan excluidos todos aquellos locales que no tengan relación directa con el ocio juvenil: las actividades hosteleras, incluidas las txosnas y txokos gastronómicos y todas aquellas relacionadas en la sección 1ª del Decreto 171/1985 de 11 de junio\*.

El Ayuntamiento de Erandio, a través del Área de Juventud, pone en marcha este servicio con el objetivo de mediar y mejorar la convivencia entre las partes implicadas: personas usuarias, personas propietarias de las lonjas y vecinas y vecinos de las mismas.

El Ayuntamiento de Erandio es consciente de que al no desarrollarse en su interior ninguna actividad económica, ni ninguna explotación comercial, estos espacios quedan al margen de control y/o inspección al respecto.

El fin de esta guía es garantizar que estos espacios juveniles reúnan las condiciones mínimas de seguridad, habitabilidad e higiene, evitando perjuicios tanto para las personas usuarias, como para la comunidad y el entorno. Además, pretendemos establecer canales de comunicación que favorezcan la convivencia, por un lado, y, por otro, nos gustaría impulsar otras ofertas de ocio, especialmente aquellas propuestas que surjan de este colectivo.

\*Sección 1ª. Actividad de hostelería, ocio y tiempo libre // Capítulo 1º. Bares y restaurantes // Capítulo 2º. Discotecas, salas de fiesta y espectáculos, salas cinematográficas, bingos



# 2. PERSONAS DESTINATARIAS

- a. Personas mayores de edad que se reúnan en este tipo de espacios.
- b. Tutoras o tutores legales de menores de edad que sean personas usuarias de este tipo de espacios.
- c. Propietarias/os de inmuebles destinados a este uso.
- d. Comunidades vecinales.



## 3. PROCEDIMIENTO INSCRIPCIÓN

Las personas usuarias, que de manera colectiva, quieran hacer uso de estos espacios de ocio deberán estar inscritas en el Registro Municipal de Espacios Juveniles.

- La inscripción solo podrán llevarla a cabo personas mayores de edad.
- Las personas usuarias tendrán la obligación de comunicar a Lonjagune cualquier modificación que se pueda dar sobre cualquiera de los datos y/o documentos requeridos en la presente guía.
- La **apertura de un nuevo espacio juvenil** se deberá notificar al servicio de Lonjagune. Se dispondrá de un plazo de **15 días** desde la fecha del inicio de la actividad para entregar la documentación completa.
- Para la **continuidad de un espacio juvenil existente** se deberá realizar la inscripción en el Registro Municipal de Espacios Juveniles en un plazo máximo de **dos meses** desde la fecha de notificación oficial de esta guía.
- En el caso de que la documentación presentada no sea la exigida, se concederá **un plazo de diez días adicionales** para su subsanación, empezando a contar desde el momento de la notificación. Si la documentación requerida no se presenta en el plazo señalado, se entenderá por desistida la solicitud y quedará fuera del programa Lonjagune.

### 3.1 Documentos a presentar para la inscripción

La solicitud de inscripción se realizará a través del servicio de mediación Lonjagune, aportando la siguiente documentación:

- Listado de todas las personas que forman parte del espacio juvenil, incluyendo al menos los siguientes datos: nombre y apellidos, fotocopia del D.N.I. y teléfono de contacto y correo electrónico de, al menos, dos personas de la lista.
- Datos de la persona propietaria del local indicando su nombre, apellidos, teléfono de contacto y dirección del local.
- En caso de menores, autorización de las tutoras o los tutores legales. *(El servicio de Lonjagune dispone de un modelo a disposición de quien lo necesite).*
- Copia actualizada del contrato de alquiler o cesión.
- Copia actualizada de la póliza del seguro de Responsabilidad Civil y recibo de pago correspondiente.
- Copia del contrato de suministro de la luz y agua.
- Documentación que acredite el estado adecuado del extintor mediante copia de recibo de mantenimiento.
- Plano del local, siendo los elementos mínimos que deben aparecer los siguientes: metros cuadrados del local, indicación de la salida, ventanas si las hubiera, ventilación, WC, habitaciones, cuadro eléctrico, tomas de agua y calefacciones.

### 3.2. Servicios incluidos en Lonjagune

- Mediación entre todas las partes involucradas (personas usuarias, vecindario y personas propietarias).
- Intermediación entre Ayuntamiento y espacios juveniles.
- Asesoramiento sobre la convivencia.
- Asesoramiento sobre la seguridad en el local.
- Entrega de **"Kit de adhesión al programa"**: extintor, botiquín, luz de emergencia y cubos de reciclaje de basura, (hasta fin de existencias).

### 3.3. Espacios juveniles sin registrar

Todos aquellos espacios juveniles que no se inscriban cumpliendo los plazos determinados anteriormente podrán ser clausurados si las circunstancias así lo aconsejaren, previa audiencia a las personas interesadas. Además, quedarán al margen de los servicios que ofrece el programa Lonjagune.

## 4. CONDICIONES DE INFRAESTRUCTURA Y SEGURIDAD



### 4.1. Acceso

Estos espacios juveniles deben tener acceso directo a la calle. Por lo tanto, no se permite la existencia de espacios con acceso desde portales o en sótanos. Las puertas de acceso deberán garantizar un funcionamiento silencioso.



### 4.2. Luz

El espacio juvenil deberá contar con una instalación eléctrica en condiciones adecuadas para su uso. Ésta deberá ir acompañada del Boletín de Instalaciones Eléctricas firmado por una persona técnica electricista homologada. Además es necesario entregar el contrato en vigor (solicitárselo a la propietaria o propietario del local).



### 4.3. Agua corriente

Es imprescindible que exista instalación de agua corriente, al menos una toma, para garantizar las labores de limpieza e higiene. Además es necesario entregar el contrato en vigor (solicitárselo a la propietaria o propietario del local).



### 4.4. Cuarto de aseo

El espacio deberá disponer de un cuarto de aseo equipado como mínimo con un lavabo y un inodoro en condiciones adecuadas de uso.



### 4.5. Luz de emergencia

Deberá haber una luz de emergencia fotoluminiscente al menos encima de la puerta de salida del espacio juvenil, y si es posible en todos los habitáculos. La luz de señalización deberá estar debidamente colocada en la pared o techo, en la parte superior de la puerta de salida a una distancia mínima de 2 metros de altura sobre el suelo.



### 4.6. Extintor de incendios

Los espacios juveniles deberán contar, como mínimo con un extintor de 6 l. de espuma AFFF eficacia 27A-233B. Deberá estar colocado a una altura máxima de 1,50 m. del suelo y con contrato de mantenimiento en vigor. Se entregará a Lonjagune el certificado de mantenimiento anualmente. Además, se recomienda evitar la acumulación de material combustible (revistas, periódicos, mobiliario no necesario, etc.).



### 4.7. Botiquín de primeros auxilios

Será necesario disponer de un botiquín de primeros auxilios que deberá contar como mínimo de los siguientes elementos: alcohol, agua oxigenada, desinfectante (povidona yodada), suero fisiológico, algodón, gasas estériles individuales, venda, esparadrapo, tiritas, tijeras, pinzas y guantes.



### 4.8. Insonorización

La insonorización es una buena opción para controlar el ruido. Se debe evitar la utilización de papel, cartón, cajas de huevos, polietileno expandido (corcho blanco) u otros materiales de fácil combustión.

### 4.9. Plazos de cumplimiento

**Espacios Juveniles de nueva apertura:** todas las condiciones mínimas exigidas descritas en este capítulo deberán de cumplirse antes de la apertura de la lonja. En caso de que no se cumplan las personas que quieran ser usuarias de ese espacio no podrán inscribirse en el registro con dicho lugar como sede.

**Espacios ya existentes en el momento de la entrada en vigor de la guía:** todas las condiciones mínimas exigidas en este capítulo deberán cumplirse en el plazo de **6 meses** a contar desde la inscripción en el Registro Municipal de Espacios Juveniles.

# 5. CONDICIONES PARA UNA BUENA CONVIVENCIA Y SEGURIDAD

Ninguno de estos espacios juveniles puede tener consideración de vivienda o residencia habitual, lo cual implica que nadie podrá empadronarse ni pernoctar en él.



## 5.1. Aforo

Todos los espacios juveniles tienen una capacidad máxima de ocupación, es decir, un número máximo de personas que pueden estar presentes en un momento dado en el local de forma segura. En este caso se establece que el aforo no supere el de 1,5 personas/m<sup>2</sup>, con un **MÁXIMO DE 20 PERSONAS**. Será obligación de las personas responsables del espacio que no se supere ese aforo en ningún momento. Se deberá colocar en un sitio visible del lugar un cartel que indique el aforo máximo del mismo.



## 5.2. Limpieza e higiene

Las personas usuarias deberán cumplir unos mínimos en cuanto a orden y limpieza del espacio, y serán responsables por igual de las condiciones higiénicas de éste. De acuerdo con lo anterior,


- No se permitirá la acumulación de basuras o desechos, tanto en el interior como en el exterior del mismo. Tampoco se podrán sacar muebles al exterior.
- Para deshacerse de mobiliario o bultos voluminosos se deberá llevar al Garbigne o llamar al Servicio de Recogida de Enseres del Ayuntamiento previo aviso al teléfono 944.676.198 o 664.795.004.
- Debe garantizarse la ventilación del espacio.

## 5.3. Horarios

Para garantizar la convivencia a partir del horario establecido el espacio deberá permanecer en silencio:

### Régimen general:

- De domingo a jueves: a partir de las 22:00h hasta las 10:00h.
- Viernes y sábados: a partir de las 00:00h hasta las 10:00h.



### Excepciones, incremento del horario:

- Media hora desde el 1 junio al 30 de Septiembre.
- Una hora las vísperas de festivos.
- Una hora y media en fiestas patronales, jueves a lunes de Semana Santa, de jueves a martes de Carnaval y desde el 21 de diciembre al 6 de enero.

Se deberán evitar los ruidos molestos (gritos, silbidos, cánticos) o innecesarios producidos en los momentos de entradas y salidas del espacio, así como la concentración de gente en la entrada del mismo a partir de las 22:00h.



## 5.4. Calefacción

Se podrán utilizar calefacciones eléctricas cuyo enchufe tenga el diferencial independiente. En el caso de utilización de calefacciones de parafina o queroseno, el espacio deberá contar con sistemas de ventilación de rejillas. No estará permitido el uso de butano.



## 5.5. Cocina

Estará permitida la instalación de hornos microondas y/o de aparatos frigoríficos. Estos últimos deberán disponer de las medidas necesarias para evitar la transmisión de ruidos y vibraciones a las viviendas colindantes.

No está permitida la utilización de cocina. En el caso de espacios que ya la tengan, no se podrá hacer uso de ella y se deberá firmar un acuerdo de no utilización de la misma.



## 5.6. Seguro

Todos los espacios deberán contar con un Seguro de Responsabilidad Civil con una cobertura mínima de 300.000,00 €. El seguro deberá estar actualizado y con la póliza vigente. Además será necesario entregar una copia del seguro y del recibo de pago con cada renovación anual.



## 5.7. Contrato

Todos los espacios deberán tener un contrato de alquiler o de cesión de uso firmado entre la persona propietaria y las personas usuarias. El contrato deberá ser firmado por todas las personas usuarias o en su defecto por las y los representantes designados a tal efecto, añadiendo o eliminando miembros conforme vayan causando alta o baja en la misma, mediante anexos. En caso de menores de edad, el contrato lo firmarán las tutoras o los tutores legales en representación del o la menor. *(Todas las personas que lo soliciten dispondrán de un contrato tipo que les facilite el trámite).*

## 5.8. Otros

- En el caso de mascotas, en ningún caso podrán permanecer solas en el espacio.
- Conviene tener siempre un juego de llaves en un lugar a mano y visible para todas/os.

## 6. SISTEMA DE PUNTOS

Se establecerá un sistema de puntos, de manera que cada uno de los grupos tendrá un total de **7 PUNTOS** en el momento de su inscripción en el Registro Municipal de Espacios Juveniles.

La aplicación del sistema de puntos será dirigida al grupo y no de manera individualizada, de esta forma, todo el grupo es responsable de la situación del local en todo momento.

### Las acciones que conllevan el incremento y/o recuperación de puntos son:

- No perder puntos durante un año.
- Participar en las actividades propuestas desde Lonjagune.

Ambas acciones supondrán la obtención de un punto extra a sumar a los siete puntos iniciales, hasta un máximo de 10 puntos.

### Acciones que conllevan la pérdida de puntos:

#### 1 PUNTO: LEVES

- a. El incumplimiento de lo dispuesto sobre horarios y ruidos.
- b. Falta de higiene en el espacio y la acumulación de basuras o desechos, tanto en el interior como en el exterior del local.
- c. No colocar en un lugar visible del espacio el documento que acredite la inscripción en el Registro Municipal de Espacios Juveniles (Lonjagune), el documento acreditativo de aforo y el de saldo de puntos.
- d. Tener animales sin custodia en el local.
- e. Sacar muebles (sillas, mesas, sofás y otros enseres) y hacer uso de los mismos en el exterior de los espacios de manera que obstaculicen el tránsito normal de las personas.
- f. Falta de notificación al programa Lonjagune de cualquier modificación de la información aportada en la inscripción.
- g. Cualquier otra acción de lo dispuesto en esta guía referida a cumplimiento de trámites administrativos, plazos o normas que no se encuentre ya tipificada como muy grave o grave.
- h. Cualquiera de las acciones previstas en los dos apartados siguientes cuando por su naturaleza, ocasión o circunstancia no deba ser calificada como grave o muy grave.

#### 2 PUNTOS: GRAVES

- a. La omisión de las medidas de higiene y salubridad exigibles o el mal estado de los espacios e instalaciones, que incidan en la seguridad de personas o bienes.
- b. La superación del aforo máximo autorizado cuando se produzcan situaciones de grave riesgo para personas o bienes.
- c. No disponer de la instalación de extintor de incendios en óptimas condiciones de funcionamiento.
- d. El uso inadecuado del material proporcionado por Lonjagune para la mejora de la seguridad y convivencia.
- e. La manipulación, falsificación y/o alteración del documento que acredite que el local está inscrito en el Registro Municipal de Espacios Juveniles (Lonjagune), del documento acreditativo del saldo de puntos y límite de aforo.
- f. La comisión de más de tres acciones leves en 6 meses.
- g. Cualquiera de las acciones previstas en el apartado siguiente cuando por su naturaleza, ocasión o circunstancia no deba ser calificada como muy grave.

#### 3 PUNTOS : MUY GRAVES

- a. El incumplimiento de las resoluciones de prohibición y suspensión de la actividad del local.
- b. La realización de actividades recreativas prohibidas por la Ley.
- c. La negativa reiterada a permitir el acceso de los servicios municipales que así lo requieran e impedir u obstaculizar gravemente la inspección.
- d. La comisión de más de dos acciones graves en seis meses.
- e. Cualquiera de las acciones contempladas en los dos apartados anteriores cuando se generen riesgos, daños o molestias de carácter muy grave a las personas, sus bienes o al medio ambiente y así lo estimen las personas oportunas.

La pérdida de todos los puntos conllevará para las personas usuarias la inhabilitación para obtener una nueva autorización para el uso durante el plazo de 6 meses a contar desde la toma de la decisión.

Para valorar el alcance de las acciones se tendrán en cuenta los siguientes factores:

- a. Naturaleza y cuantía de los perjuicios causados a las/os particulares.
- b. Repercusión social de la acción.
- c. Riesgo creado por la actividad desarrollada.
- d. La existencia de intencionalidad o reiteración.
- e. Beneficio ilícitamente obtenido.

## **6.1. Cambios de ubicación de grupos o personas individuales a otro espacio**

### **Cambio de ubicación a espacios nuevos no inscritos en Lonjagune:**

- Si el 70% o más de un grupo se cambia a un nuevo espacio desocupado, mantendrá los puntos que tenía anteriormente. Tendrá que poner en conocimiento de Lonjagune su nueva ubicación.
- Si menos de un 70% del grupo cambia a un nuevo espacio desocupado, deberá realizar una inscripción como un nuevo grupo y empezará con los puntos iniciales de espacios juveniles de nueva apertura (7 puntos).
- Si dos grupos ya inscritos o más se unen en una nueva ubicación, se creará un nuevo grupo y por lo tanto tendrá que volver a inscribirse y empezará con los puntos iniciales (7 puntos).

### **Cambio de ubicación a espacios ya inscritos:**

- Si un grupo que estaba ubicado en un espacio concreto se une a otro ya inscrito en otra ubicación, se adquieren los puntos del grupo mayoritario. Tendrá que proporcionar a Lonjagune el listado de las nuevas incorporaciones.
- El servicio de Lonjagune se reserva el derecho de valorar cada situación y tomar las decisiones oportunas.



## **7. MEDIDAS PARA LA SUPERVISIÓN Y LA MEDIACIÓN**

- Para el seguimiento de lo dispuesto en esta guía existe una Comisión formada por:
  - Área de Juventud
  - Policía municipal
  - Lonjagune, Servicio de Mediación en Espacios Juveniles
- Se realizarán supervisiones ordinarias de verificación de los compromisos adquiridos. Se acordarán con el grupo visitas ordinarias en el espacio donde se supervisará el efectivo cumplimiento de lo dispuesto en esta guía. En caso necesario podrán dar aviso para aplicar las medidas correctoras oportunas.
- Las personas usuarias estarán obligadas a facilitar las citadas supervisiones al personal municipal. Dichas supervisiones se realizarán mediante cita previa (siempre que sea posible) y de manera que generen la menor molestia para las personas usuarias.
- Aquellas personas que sean designadas como representantes de cada local serán las únicas interlocutoras con Lonjagune.
- El servicio de Lonjagune será el representante e interlocutor del Ayuntamiento frente a las personas usuarias, comunidades de vecinas y vecinos y personas propietarias. Es un servicio disponible para toda la ciudadanía de Erandio dispuesto a aclarar cualquier duda con respecto a la presente guía.

En definitiva, esta iniciativa, además regularizar la situación, pretende ser el punto de partida de un nuevo concepto de espacios y alternativas juveniles dentro del municipio.



**LONJAGUNE!**

## GUIA DE BUENAS PRÁCTICAS EN ESPACIOS JUVENILES



**LONJAGUNE**  
Servicio de  
Mediación en  
Espacios Juveniles



Desanexio, 4 - 1º



94.417.56.16



618.76.87.73



lonjagune@erandioko-udala.net.

